

Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko 34. Azoka

Lan berriak



BOB EDME



EGUNKARIA

Kike Amonarriz.

Kike Amonarrizek beste txiste liburu bat atera du

■ 'Txorakikeriak 2' izenburua du bildumak

Erredakzioa / Donostia

KIKE AMONARRIZ soziolin-
guista eta telebista aurkez-
leak *Txorakikeriak 2* txiste
liburua kaleratu berri du,
Argia astekariaren eskutik.
Liburuak azpтитulu esan-
guratsua darama: *Umo-
re. Erre. Zitala*. Duela urtebe-
te juxtu, 1998ko azaroan
argitaraturiko *Txorakike-
riak 1* arrakastatsu haren
jarraipena da liburu berri
hau. Bertan, txisteen mun-
duan euskarak duen tradi-
zioa luze eta aberatsari segi-
da eman dio tolosarrak,
«irakurleari ezinbestea eta
algara eragiteko elementu
zital guztiak osagaitzat har-
turik», argitaletxeak azaldu
duenez.

Pertsonaia bitxiak eta
egoera xelebreak bildu ditu
Amonarrizek, eta hainbat
atal eta protagonista berri
sortu ditu: *Modesto beti
presto*, *Legea lege... dura
lex*, *On Kanuto*, *Euskal Piz-
tiarioa*, *Familia batua*, *inoiz
ez zanpatua*, *Otto Potto jaun
burua*, *Hi haiz hi, animalia*,
Badakizue... artistak, *Oca-
ña Kapitaina* eta beste hain-
bat. Guztira hogeita bost
atal ditu liburuak. Azala
Antton Olariaga marrazki-
lariak egin du.

Liburuaren aurkezpena
atzo arratsaldean egin zen

Tolosako Lizardi elkarte-
an. *Tolosa*, *Euskal Herriko irri-
buru* izenburuko umore
errezitala eskaini zuen
Amonarrizek, Joxe Ramon
musikariarekin batera.

Hogei urte umoregintzan

Kike Amonarrizek soziolin-
guistika izan du lanbide
urte luzez. 80ko hamarka-
dan hasi zen umorea jorra-
tzen. *Argia* astekarian
1981ean hasi zen kolabora-
tzen, eta *Txisteka Misteka*
kaseteak eta *Arpa jotzen*
liburua argitaratu zituen.

Iaz, *Txorakikeriak 1* bil-
duma osatu zuen Xabier
Telleriarekin batera, eta
orain *Txorakikeriak 2* hau
kalean ipini du.

Horrez gain, ikus-entzu-
nezkoen arloan oso aurpegi
ezaguna da Kike Amonarri-
zena. Telebistako hainbat
saiotan hartu du parte: *Hau
da A.U.*, *Txiskola*, *Balinda*,
Sikofonia, *Bai zera...*

Teknologia berrietara ere
egin zuen jauzi duela hila-
bete batzuk Amonarrizen
umoreak. Izan ere, *Argia*-
ren webgunean egunero
tolosarraren txiste berri bat
topa dezake internautak.

Liburua ohiko tokietan
eta *Argia*-ra zuzenean eska-
tuta eskura daiteke.

Eraberritzea

■ ■ ■ «*Beti behar
da denbora
gauza berrietan.
Urrats zinez
handia egiten
delarik, arte hori
hutsabatzen da
eta hor behar du
zenbaitek heldu
pixkaka. Hautua
da enetzat txiki
egitea*»

Herrian, mintzaira baldin
bada beti aitzina joan da.
Gauza inportantea da min-
tzaira. Etxahun izan da Bar-
koxe, Etxahun Iruri, egun
bada Bedaxagar, bada Pier
Paul, Niko, bada besterik, eta
horiek oroek hartu dute pix-
ka bat lehengoetan eta aitzina
joanarazten diete beren
pentsatzeko manierarekin;
eta nik ber gauza egin dut.
Mintzatzen eta izkribuz egi-
ten ahal dela mintzaira bat,
hori hola joan da, baina kasu
egin behar da. Iparraldean
gaitz da, eguneroko lana da.
Gazteer ari gara erakusten
dantza eta kanta, baina ez da
gauza erraza.

batendako, eta hor ere leiho
txiki bat zabaltzen dut, musi-
karekin bezala. Bi modutan
egiten dut leihoa zabaltze
hori.

■ **Zuberoan kantagintza
tradizionalaren eredutzat
zauzkate, baina Axiariren
musika ez da ulertzen.**

Ez da ezagutua. Hark hau-
tu bat egin du, urrats handia
egitea berrikuntzan edo bere
pentsatzeko maneran eta gu
emekie-mekie ari gara berri-
kuntzan, baina beste manera
batean.

■ **Nola ikusten duzu Axiarik
egin duen urratsa?**

Artista handia da Axiari,
eta bere lana segida atxiki-
tzez iraganaraziko du, baina
denbora igaro behar da, ez da
beti aise. Beti behar da den-
bora gauza berrietan. Urrats
zinez handia egiten delarik,
arte hori hutsabatzen da eta
hor behar du zenbaitek hel-
du, pixkaka. Hautua da ene-
tzat txiki egitea eta heltzea
urrunago pixkaka. Bakoitzak
bere manera du lanean ari-
tzeko.

■ **Axiarik dio tradizioa
hemen eta orain egiten
dela. Zure ustez zer da
tradizioa?**

Enetako tradizioa da
lehen-lehenik mintzaira
baten ongi ezagutzea eta
handik aitzina joan da tradi-
zioa, jendea bizi delarik
Xuberoan edo Euskal

Ainara Mendiola

BAIONA